# lehen
## Hiztegia

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

FACULTAD DE HUMANIDADES Y CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

VOX DICCIONARIOS

# Aurkibidea

**Hitzaurrea** .......... 7
**Hiztegia ulertzeko** .......... 9
**Alfabetoa eta zenbakiak** .......... 19
Alfabetoa .......... 21
Zenbakiak .......... 22
Zenbakien idazkera .......... 23
**Sinboloak** .......... 25
**Deklinabidea** .......... 27
**Aditza** .......... 33
**Hitz eratorriak** .......... 53
**Izendegiak eta herritarren izenak** .......... 59
Euskal Herrikoak .......... 61
Mundukoak .......... 79

**Hiztegia** .......... 89

# Hitzaurrea

Hogei urte bete dira LEHEN HIZTEGIA argitaratu zenetik. Ibilbide luzea agortu zitzaigun kopuruz, itxuraz, bai eta edukiz ere, izan ere aldaketa handiak izan dira azken hogei urteotan, eta garai berrietara egokitu behar genuen hiztegia.

Aldaketak izan dira, bai, arlo guztietan. Gu geu ere Eskoriatzako Irakasle Eskola ginen garai hartan, baina azken urteotako bilakaeraren ondorioz, Mondragon Unibertsitateko Hezkuntza eta Giza Zientzien fakultatea (HUHEZI) gara gaur egun. Bai orduan eta bai gaur egun ere, hezkuntza eta hizkuntzarekiko erabateko konpromisoa izan da gure ikurretako bat.

Jatorrizko argitalpen hura hartu dugu oinarritzat, baina berritu egin dugu: batetik, formatu eroso eta modernoagoa eskaini nahi izan diogu gure hiztegia kontsultatzera datorrenari, kolore eta letra-motak ere garai berrietara egokitu ditugu. Eta, bestetik, Euskaltzaindiaren azken arauekin bat datozen testuak aurkituko dituzu orriotan.

Edonola ere, aurreko argitalpenen filosofiaren haritik datorkizu hirugarren hau ere; alegia, hizkuntzarekin lehenbiziko harremanak dutenen interes eta kezkei erantzuteko helburuarekin. Horrenbestez, bereziki haur eta nerabeak gogoan direla atondutako hiztegia duzu hau.

Orduan bezalaxe, ilusioz beterik ekin diogu eskuartean duzun argitalpen honi, jakin badakigulako, izenak berak ere hala adierazten duenez, hauxe izango dela askoren lehen hiztegia.

Ezin ditugu aipatu gabe laga Larousse argitaletxeko kideek gugan jarri duten konfiantza LEHEN HIZTEGIAren argitalpen berri hau gauzatu ahal izateko. Eskerrik asko.

HUHEZIn (Eskoriatza), 2010eko neguan

Hiztegian, alfabetoaren arabera ordenaturik ematen dira sarrera guztiak. Nabarmendutako letrak hauxe adierazten du: letra horrekin hasten diren sarrerak datozela hurrengo orrialdeetan.

Liburuki honen amaieran, koloretako laminak aurkituko dituzu. Hiztegiko sarrera askotan, laminetara bideratzeko deia ikusiko duzu.

abcdefghijklmnño **P** qrstuv

**p**
izena Euskal alfabetoko hamazazpigarren letra.

**pa**
izena Ikus **apa**².

**pabiloi**
izena Eraikin nagusiago baten zatia izan arren, hartatik bereizita dagoena: *Ferian **pabiloi** bana dute enpresa guztiek.*

**padera**
izena Ikus **zartagin**.

**padura**
izena Itsasotik hurbil dagoen lur-eremu zingiratsua. SINONIMOA Zingira.

**paella**
izena Haragi, arrain, itsaski, lekari, barazki eta abarrez prestatutako arroza: ***Paella** jango dugu gaur.*



paella

**paga**
izena **1.** Lansaria: *Apaizen **paga** ez da oso oparoa.* **2.** Haurrei gastatzeko ematen zaien dirua.

**pagadi**
izena Pagoz betetako basoa.

**pagatu**
aditza **1.** Ikus **ordaindu**. **2. larrutik pagatu** Asko kostatu. **3. moneta berean pagatu** Norbaitekin gisa berean portatu. **4. odolez pagatu** Hil.

**pago**
izena Hosto erorkorreko zuhaitz garaia, enbor grisekoa; lurralde busti eta hotzetan hazten dena: *Pagoetako **pagoak** mardul-mardulak dira.* LAMINA (4)

**pagotxa**
izena Ikus **hirusta**.

**pagu**
izena Zor dena ordaintzeko ematen den dirukopurua: *Soldaduek gaur jaso dute **pagua**.* SINONIMOA Ordainketa.

**pailazo**
izena Hitz eta janzkera xelebrez barre eragiten duen zirkuko artista: ***Pailazoek** alde barregarria ikusten diote bizitzari.*



pailazoa

**pairaezin**
izenondoa Pairatu ezin dena: *Oinaze **pairaezinak** izan zituen hil aurretik.* SINONIMOA Jasanezin. Onartezin.

**pairakor**
izenondoa Pertsona lasaia, nahigabeak bere onetik atera gabe jasateko gai dena.

**pairamen**
izena Ikus **pazientzia**.

Sarrera batzuen ondoan, irudia ere ikusiko duzu.

Hau orrialde-zenbakia da,
eta beti goiko aldean jarri da.

Bila ari zaren hitzari sarrera esaten zaio. Oso erraz aurkitzen dira hiztegian, urdinez eta letra handiagoz idatzita baitaude.

Sarreraren azpiko azalpena hitzaren definizioa da. Azkar ulertzeko moduan emanak daude.

439

**lixatu**
aditza Zerbaiten gainazala karrakatu, pintura, berniza edo itsatsirik daukan edozein gauza kendu eta leuntzeko: *Lixa-papera erosi dut atea pintatu aurretik* ***lixatzeko***.

**lixiba**
izena Arropa, zorua, eta abar garbitu eta desinfektatzeko erabiltzen den likidoa: *Arropa* ***lixibatan*** *sartu behar da zuritzeko.* SINONIMOA Latsa.

**lizar**
izena Egur preziatua duen zuhaitza.

**lizentzia**
izena **1.** Legeak zerbait egiteko ematen duen baimena: ***Lizentzia*** *beharrezkoa da armak erabiltzeko.* **2.** Zenbait kasutan ontzat ematen den gramatika-akatsa: ***Lizentzia*** *handiak hartzen ditu poeta horrek.*

**liztor**
izena Marra hori eta beltzak dituen intsektua, daukan eztenaz ziztada mingarri eta pozoitsuak egiten dituena: ***Liztorra*** *erlearen antzekoa da.* SINONIMOA Erlabio.

**lizun**
izena **1.** Gai organikoei, usteltzen hasten direnean, gainazalean egiten zaien onddo-geruza: *Gela honetan* ***lizun****-usaina dago.* SINONIMOA Urdin.
izenondoa **2.** Moralaren kontrakoa dena: *Hitz eta egintza* ***lizunak***. SINONIMOA Zatar. **3.** Ikus **zikin**.

**lizundu**
aditza **1.** Gai organiko batek lizuna hartu: *Hezetasunak* ***lizundu*** *du gazta.* SINONIMOA Urdindu. **2.** Ikus **zikindu**.

**lo**
izena **1.** Gizaki eta animalien atseden-egoera, inguruarekiko oharlasuna etenik dagoena: *Leirek oso* ***lo*** *astuna dauka, edozein gauza gertatuta ere, ez da esnatzen.* * *Haurra* ***lotan*** *dago sehaskan.* **2. loa galdu** Lo egiteko gogoa galdu, esnatu. **3.** ***Loak hartu*** *dizkit oinak:* lotan geratu. **4. lo utzi** Txunditu. **5. loak eraman** Logaletu. **6. loak errea egon** Logaleak egon.



lotan dago

Goi-goiko hitz honi **hitz gidaria** esaten zaio, eta hiztegiaren zein partetan zauden jakiteko da.

logela

**lo egin**
aditza Denbora batez, gauean batik bat, ezer entzun eta ikusi gabe, atseden-egoeran egon: *Ez dut ia **lorik egin** gau osoan.*

**loba**
izena Ikus **iloba**.

**lodi**
izenondoa eta adizlagun 1. Haragi ugari duena: *Gehiegi jaten baduzu, oso **lodi** jarriko zara.* * *Liburu **lodia** aparitu didate.* SINONIMOA Gizen. Potolo. Mardul. Sendo. 2. Arina ez dena, solido bihurtzen hasitako likidoa: *Txokolate **lodia**.* SINONIMOA Trinko.



gizon lodia

**lodiera**
izena Objektu baten hirugarren dimentsioa, luzera eta zabalera ez dena; gorputz zilindrikoen diametroaren neurria: *Adreilu hauek hamar zentimetroko **lodiera** daukate.*

**loditu**
aditza Zerbait zein norbait lodi edo lodiago bihurtu: *Lau kilo **loditu** naiz hilabetean.* * *Irina bota diot saltsari **loditzeko**.* SINONIMOA Gizendu.

**logale**
izena Lo egiteko gogoa: ***Logale** naiz.* SINONIMOA Logura.



logale da

**logela**
izena Lo egiteko prestatutako gela. LAMINA (9), (10)

l

Batzuetan hitzek **adiera** bat baino gehiago dute. Hiztegi honetan, adiera bakoitzak zenbaki bat darama aurretik, salbu eta adiera bakarreko sarrerek: horiek ez dute zenbakirik.

Orrialde bakoitzeko kanpoko marjinetan **alfabeto osoa** ikusiko duzu; letra horietarik bat nabarmenduko dugu, eta esan nahi du orrialde honetan letra horrekin hasten direla hitz guztiak.

Definizioen ondoren **adibideak** jarri dira batzuetan, eta letra etzanean eman dira, azalpenetatik bereizteko. Adibideek esanahia ulertzen lagunduko dizute, eta gainera hitza egoki erabiltzen. Adibide bat baino gehiago eman denean, izarño bat (*) jarri da tartean, elkarrengandik bereizteko.

Definizio batzuen amaieran **sinonimoak** jarri dira. Adiera bakoitzak bere sinonimoak ditu.

Sarrera bakoitzaren azpian bere **kategoria gramatikala** ikusten dugu letra txikian. Hitz batzuek bat baino gehiago dute.



zoragarri

**zoragarri**
izenondoa Duen edertasun zein beste edozein nolakotasunarengatik harridura, atsegina sortzen duena: *Leku **zoragarrian** bizi dira. * Mutil **zoragarria** ezagutu nuen atzo.* SINONIMOA Xarmagarri. Liluragarri.

**zorakeria**
izena Zoroari dagozkion egite edo hitzak: *A ze **zorakeriak** esaten dituzun! Hobe zenuke hitz egin aurretik pixka bat pentsatu.* SINONIMOA Erokeria.

**zoratu**
aditza **1.** Zentzua galdu, zoro bihurtu: ***Zoratu** egin zara al?* SINONIMOA Erotu. Burutik egon. **2.** Guztiz atsegin edo erakargarria gertatu: ***Zoratzen** daude erosi duten txaletarekin.* SINONIMOA Liluratu. **3. hego hitzik gabe zoratu** Guztiarekin larritu.

**zori**
izena **1.** Ikus **zorte**. **2. zorian egon** Zerbait gertatzeko unea heldu: *Hil**zorian** egon zen.*
izenondoa **3.** Ikus **heldu**[6,7].

**zorigabe**
izenondoa **1.** Ikus **zoritxarreko**. **2.** Ikus **madarikatu**.

**zorigaitz**
izena Gertaera triste edo txarra zein kaltea eragiten duena: *Hau **zorigaitza**!* SINONIMOA Zoritxar. Ezbehar.

**zorion**
izena **1.** Pozik edo ongi aurkitzen den pertsonaren arima-egoera: *Hau **zoriona**! * Zu gabe ez dut **zorionik** izango.* SINONIMOA Zoriontasun. **2. zorionak!** Norbaiti zerbait ona gertatu zaionean poza adierazteko erabiltzen den esamoldea.

**zoriondu**
aditza **1.** Norbaiti zerbait ongi atera zaiolako gure poza adierazi: *Antton **zoriontzera** joan ginen eskultura-txapelketa irabazi zuenean.* **2.** Festa, urteurren, Eguberri, urtebetetze eta abarrean pertsona bati zoriona opa izan: *Lagun guztiak **zoriontzen** ditut Eguberrietan.*

**zorioneko**
izenlaguna **1.** Ikus **zoriontsu**.
partikula **2.** Harridura adierazteko hitza: *Zer arraio kontatuko ote didate **zorioneko** gutun horretan?*

z

Sarrera batzuek ez dute definiziorik; "Ikus" baten bidez, hiztegiko beste sarrera batera bidaltzen gaituzte. Han aurkituko dugu esanahia. Ikusen ondoko hitzak zenbakitxoak baditu, hitzaren adiera horietan begiratu behar da esanahia.


630

**zoriontasun**
izena Ikus zorion.

**zoriontsu**
izenondoa Gauzak ongi doazkiolako pozik dagoen pertsona: *Denok izan nahi dugu **zoriontsuak**.* SINONIMOA Zorioneko. Zorionstsu.

**zoritsu**
izenondoa Ikus **zoriontsu**.

**zoritu**
aditza Ikus **heldu**[6,7].

**zoritxar**
izena Gertaera triste edo txarra, kaltea eragiten duena: *Hau **zoritxarra**!* SINONIMOA Ezbehar. Zorigaitz.

**zoritxarreko**
izenlaguna Ikus **dohakabe**.

**zoritxarrez**
adizlaguna Gogokoa edo atsegina ez den zortez: ***Zoritxarrez**, gauzak ez zitzaizkigun espero bezala gertatu.* SINONIMOA Tamalez. Ondikoz.

**zornadura**
izena Gorputzaren barrualdean gertatzen den infekzioa.

**zornatu**
aditza Zauri bat zornea dariola gertatu: *Ez zuen zauria sendatzen jakin eta **zornatu** egin zitzaion.*

**zorne**
izena Infekzioa duen zauri, zaldar eta abarrek jariatzen duten likido zuri lodia.

**zoro**
izenondoa **1.** Zentzua galdu duena, oso gauza ezohikoak esan eta egiten dituen pertsona gaixoa: ***Zorotzat** jotzen du jende askok, bere buruarekin hitz egiten duelako.* SINONIMOA Ero. **2. zoro garbi** Zoro hutsa.

**zoroetxe**
izena Zoroak zaintzeko etxe berezia: *Santa Agedako **zoroetxea**.* SINONIMOA Eroetxe.

**zorri**
izena **1.** Gizakien eta beste ugaztunen ilean bizi den hegorik gabeko intsektu txikitxikia: ***Zorriak** dituzten haurrek xanpu berezia erabili behar dute ilea garbitzeko.* **2. (neure...) buruko zorria ez ikusi** Nork bere akatsak ez ikusi. **3. lau zorri ez balio** Ezer ez balio. **4. besteen buruko zorria ikusi** Besteen akatsak

Sarrerako hitzarekin osatutako lokuzioak eta esapideak ere jasotzen ditu hiztegi honek.

*te dabil kaletik, inori begiratu gabe.* **2. belarriak tente jarri** Erreparatu.

**tentel**

izenondoa Zentzurik ez duena, mespretxuzko esanahia duen irain-hitza: *Oso herabetia denez,* ***tenteltzat*** *hartzen du jende askok.* SINONIMOA Artaburu. Ergel. Inozo. Kirten. Memelo.

**tentelkeria**

izena Onargarria ez den egintzari deitzeko irain-hitza: *Hobe duzu isilik egon, horrenbeste* ***tentelkeria*** *esaten jardun gabe.* SINONIMOA Ergelkeria. Tontakeria. Zozokeria. Inozokeria.

**tentetu**

aditza Tente jarri: *Ilea* ***tentetu*** *zait.*

**tentsio**

izena **1.** Odolak arterietan egiten duen presioa: *Egun hauetan asko jaitsi zait* ***tentsioa***. **2.** Ezadostasuna: ***Tentsio*** *handia dago bi taldeen artean.* **3. tentsioan egon** Urduri egon.

**tentu**

izena **1.** Ikus **izaera**. **2.** Arriskuaren aurrean, kaltea saihesteko jartzen den arreta: ***Tentuz*** *ibili.* SINONIMOA Zuhurtzia. **3.** Ikus **oreka**.

**teoria**

izena Gai, zientzia, asignatura eta abarri buruzko ideia, ezagupen eta azalpen-multzoa: ***Teoriak*** *askotan ez du ezertarako balio, praktikan jartzen ez bada.*

**termal**

izenondoa Iturritik bero irteten den uraz esaten da: *Osabak bainu* ***termalak*** *hartzen ditu osasuna hobetzeko.*

**termiko**

izenondoa Beroarekin zerikusia duena: *Zentral* ***termikoetan*** *indar mekaniko bihurtzen da bero-indarra.*

**terminal**

izena Edozein garraiabideren azken geltokia: *Autobus-****terminalean*** *itxarongo dizut.*

**termita**

izena Inurriaren antzeko intsektua, barazkiak eta zura jaten dituena.

**termo**

izena Edariak eta janariak bero kontserbatzen dituen ontzi itxia: ***Termo*** *bat kafesne eraman genuen mendira.*

**termometro**

izena Tenperatura neurtzeko balio duen tresna.



termometroa

**terrarium**

izena Sugeak, dortokak, arratoiak eta abar hazteko erabiltzen den beira, plastiko edo abarrezko kutxa: *Suge txiki bat daukagu gelako* ***terrariumean***.

**terraza**

izena **1.** Etxe batean dagoen toki estaligabea: *Etxeko* ***terrazan*** *hartzen dut eguzkia egunero.* **2.** Kalean, jatetxe zein taberna baten aurrean egon ohi den tokia, bezeroak bertan eser daitezen mahaiak eta aulkiak dituena. LAMINA (8) LAMINA (9)



terraza

**terrore**

izena Beldur handia: ***Terrorezko*** *filmak.*

**test**

izena Gai bati buruz dituen ezagupenak, iritziak eta abar jakiteko pertsona bati egiten zaion galdera labur-multzoa.

**testamentu**

izena Pertsona batek, bera hiltzen denean, dituen diru eta ondasunak nori utzi nahi dizkion adierazteko egiten duen idazkia: *Aitonak neu izendatu ninduen oinordeko bere* ***testamentuan***. SINONIMOA Hilburuko. Ordeinu.

**testigu**

izena Ikus **lekuko**.

rioa: *Hasiera batean denok bat gentozen arren, denboraren poderioz* ***zatiketa*** *handia gertatu zen gure artean.*




zatiketa

**zatiki**
izena **1.** Ikus **partikula**. **2.** Zerbait osatzen duten zatietako bakoitza. **3.** Matematikan, zenbaki osoen zatia: *3/4 zenbakia* ***zatikia*** *da.*

**zatikizun**
izena Zatiketa batean, beste batekin zatitzen den zenbakia: *32 : 4 = 8 zatiketan 32 zenbakia da* ***zatikizuna***.

**zatitu**
aditza **1.** Zerbaitetan zati berdinak egin: *Zenbat zatitan* ***zatituko*** *dut tarta?* * *Seme-alaben artean* ***zatitu*** *zituen bere ondasun guztiak.* SINONIMOA Banatu. Zatikatu. **2.** Matematikan, bi zenbakiren arteko zatiketa egin.

**zatitzaile**
izena Zatiketa batean, beste bat zatitzen duen zenbakia: *32 : 4 = 8 zatiketan 4 zenbakia da* ***zatitzailea***.

**zaunka**
izena **1.** Txakurraren ahotsa: *Azeriaren zaunka.*
adizlaguna **2.** *Txakurrak* ***zaunka*** *eman du gau osoa.* SINONIMOA Ahausi.

**zaunka egin**
aditza **1.** Txakurrak bere ahotsa atera: *Baserriko txakurrek* ***zaunka egin*** *didate.* SINONIMOA Ahausi egin. **2. beste txakur batek zaunka egin** Zerbait espero ez bezala gertatu.

**zaunkari**
izena **1.** Zaunka egiten duena. **2. txakur zaunkaria, gutxitan hozkaria** Asko hitz egiten duenak ez du gehienetan ezer egiten.

**zauri**
izena **1.** Kolpe, erorketa eta abarren eraginez, larruazalean gertatzen den ebakia: *Zalditik erori eta* ***zauri*** *sakona egin zuen hanka batean.* **2. zauriaren gainean pikoa egin** Gaitz edo nahigabe bat beste baten ondotik heldu.



zauria

**zauritu**
aditza **1.** Norbaiti zauria egin edo gertatu: *Oina* ***zauritu*** *zait uretan sartzean.*
izena **2.** Min hartu edo zauria egin duen pertsona: *Hildakoak eta* ***zaurituak*** *gertatu ziren istripuan.*

**zazpi**
zenbatzailea **1.** «7» zenbakiaren izena: *Asteak* ***zazpi*** *egun ditu.* **2. norbaiten kopetak zazpi azal izan** Lotsagabea izan. **3. zazpi baratako atorran sartu** Besteen arazoetan sartu. **4. zazpi deabru ikusi** Sufritu. **5. zazpi etxetako herrian galdu** Gutxirekin larritu. **6. zazpi giltzekin gorde** Ezkutuan gorde. **7. zazpi herriko kanpaiak jota ere ez utzi** Beti elkarrekin ibili.

**zazpiehun**
zenbatzailea «700» zenbakiaren izena: *Mila* ***zazpiehun*** *eta berrogeita bostean argitaratu zen Larramendiren hiztegia.*

**zazpiki**
izena eta izenondoa Jaio aurretik, amaren sabelean bederatzi hilabete igaro ordez, zazpi besterik egin ez dituen haurra.

**ze**
izena **1.** *Ikus* **zer.** **2.** Ikus **zeren.**

**zebra**
izena Zaldiaren antzeko ugaztuna, hura baino txikiagoa eta marra ilun eta argiko ilaia duena: ***Zebra*** *asko dago Afrikan.*



zebra

a b d e f g h i j k l m n o p s t u x z